



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2013ko IRAILAREN 19an EGINDAKO
OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO
CELEBRADO EL 19 DE SEPTIEMBRE DE
2013.**

Olaberrian, 2013ko irailaren 19an, 18:00ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea, Jokin Garmendia Asurabarrena, Jose Manuel Garrido Fernández, Amaia Cuellar González, Jose Antonio Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti eta Gema Echaniz Badiola eta Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak.

En Olaberria, a 19 de septiembre de 2013, siendo las 18:00 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde Jokin Garmendia Asurabarrena, los concejales José Manuel Garrido Fernández, Amaia Cuellar González, Joseba Barandiaran Estala, José Bernardo Aldasoro Insausti, Gema Etxaniz Badiola e Iñigo Sarasola Aranzasti.

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito, Udaleko Idazkari Kontu-hartzaileak.

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, el Alcalde declara abierta la sesión pasándose a examinar el primer asunto del Orden del Día.

**AURREKO BILKURETAKO AKTEN
ONARPENA.**

**APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LA
SESIONES ANTERIORES.**

- 2013ko uztailaren 29ko Ohiko Batzarraren akta

- Acta de la Sesión Ordinaria del 29 de julio de 2013

Ahobatez onartua geratzen da, Idazkariak egiten duen ñabardura honekin: aktaren 9. orrialdean, zehazki 3.000 eurotik gorako fakturen onarpenari dagokion bozketan, gehiengo absolutuz onartu zirela esaten du, gehiengo arruntez onartu ziren ordea, Alkatearen kalitatezko botoarekin eta

Queda aprobada por unanimidad, con la siguiente puntualización realizada por la secretaria municipal: en la página 9 del borrador del acta, con respecto al párrafo correspondiente a la votación de las facturas superiores a 3.000 euros, dice que se aprobaron por mayoría absoluta, cuando



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

BILDU zeion OHE taldeen zinegotzien aurkako botoarekin.

Dagokion aktan aldaketa txertatuko da.

realmente se aprobaron por mayoría simple, con el voto de calidad del Alcalde y los votos en contra de los concejales de los grupos BILDU y OHE.

Se procederá a realizar el cambio en el acta correspondiente.

ALKATETZAKO GAIAK

ALKATETZA-EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 97/2013tik 127/2013-ra bitartean.

Sarasola jauna ez dago ados Zezilio-Eneako atzekaldean, HERRIGUNE S-1 eko UAU 1.7 eremuan, aparkaleku bat egiteko izapidetu den obra kontratu txikiarekin.

Honako aipamen hauek egiten ditu:

- Ez da gaia era egokian bideratu.
- Erabakia aldez aurretik hartua zegoen.
- Gardentasun falta eta zuzeneko esleipena hiru aurrekontu eskatu gabe, hitz egin egindakoaren ez bezala.
- Herriak beste lehentasun batzuk ditu.

Aldasoro jaunak, informazio falta zein gardentasun eza salatzen du.

TEMAS DE ALCALDIA

DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 97/2013 al 127/2013.

El Sr. Sarasola no está de con el contrato menor de obra para la ejecución del aparcamiento en la UEU 1.7 del S-1 HERRIGUNE, en la trasera del Zezilio-Enea. Aduce lo siguiente:

- Que no se ha llevado el tema de la forma correcta.
- Que la decisión ya estaba previamente tomada.
- Falta de transparencia y adjudicación directa sin que se hayan solicitado tres presupuestos tal y como se había hablado.
- El pueblo tiene otras prioridades.

El Sr. Aldasoro aduce igualmente, falta de información y poca transparencia.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Udal kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

**ZORREN ORDAINKETA ATZERATU
ETA ZATIKATZEARI BURUZKO
OLABERRIKO UDALAREN
ORDENANTZAREN ALDAKETA.**

Joan zen Batzorde Informatzaileetan Udal-kideei jakinarazi zitzaien.

6. artikuluko d) atalean paragrafo berri baten txertaketa proposatzen da, horren edukia honako hau izanik:

“Kasu berezitan eta 6. artikuluko b) atalean zehaztutako epeetan zorra ordaintzeko ezina justifikatzen duten agirien aurkezpenaren bidez, Alkatetzak zorraren ordainketa zatikatzeko epe luzeagoa eman dezake, gehienez 12 hilabetekoa izan daitekeelarik.”

Gaia bozkatzeko da, honako akordio hauek hartzen direlarik:

LEHENENGOA: Zati adierazgarrian egindako proposamena gehiengo absolutuz onartzen da, BILDU taldeko zinegotzien aurkako botoarekin.

BIGARRENA: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua dioenaren arabera, 30 eguneko informazio publikoko epea irekitzen da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, espedientea aztertzeko aukera emateko eta, kasua bada, egoki

Los corporativos quedan al corriente.

**MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA
GENERAL REGULADORA DE
APLAZAMIENTOS Y
FRACCIONAMIENTOS DE PAGO DE
DEUDAS DEL AYUNTAMIENTO DE
OLABERRIA.**

Se informó a los Corporativos en la pasada Comisión Informativa.

Se propone la inserción de un nuevo párrafo en el artículo 6 apartado d) siendo su contenido el siguiente:

“Excepcionalmente y previa presentación de documentos que acrediten la imposibilidad de hacer frente a la deuda en los plazos señalados en el apartado b) del artículo 6º, la Alcaldía podrá otorgar un plazo mayor para el fraccionamiento del pago de la deuda, sin que este pueda exceder de 12 meses. “

Se procede a la votación, siendo los acuerdos adoptados los siguientes:

PRIMERO: Se aprueba por mayoría absoluta, con el voto en contra de los concejales del grupo BILDU la propuesta realizada en los términos expuestos en la parte dispositiva del presente acuerdo.

SEGUNDO: De acuerdo con el artículo 49 de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local, se abre un período de información pública de 30 días, contados a partir del siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, con el objeto de que se pueda examinar el expediente en la Secretaría del Ayuntamiento y presentar,



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

konsideratzen diren alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hala ere, alegazio edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, ordenantza behin betiko onartutzat joko da, erabaki berririk hartzeko beharrik egon gabe.

Sarasola jaunak bere taldearen botoaren zentzua argitzeko xedearekin, honako aipamen hauek egiten ditu:

“ Udaletxea ez dago isunak jartzeko baizik eta arazoei irtenbidea aurkitzeko. Udalaren helburua DIRUA BILTZEA da, eta gu ez gaude batere ados herritarren kontura horrelako dirutza Udalak poltsikoratzeko. Irtenbiderik eman ez gain, arazo berriak sortzen ari dela argi dago.”

Guzti horretaz gain, Sarasola jaunak zera eskatzen du: Ihurreko langaren isunekin Udalak zenbat diru bildu egin duen.

Alkateak erantzuten dio, arazoa konpondu ez dela ziurtatu baino lehen, Ihurreko bizilagunei galdetu diezaiela ea bertan zegoen arazoa konpondu den ala ez.

**OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU
TEKNIKOAK**

**3.000 EUROTIK GORAKO
FAKTUREN ONARPENA.**

Joan zen batzorde informatzailean faktura bakoitzaren berri eman zitzairen udal-kideei.

en su caso, las alegaciones y sugerencias que estime oportunas.

No obstante, de no producirse alegación ni sugerencia alguna a dicha ordenanza, se tendrá por aprobada definitivamente, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

El Sr. Sarasola, a fin de exponer el sentido del voto de su grupo realiza la siguiente declaración:

“El Ayuntamiento no está para poner multas sino para encontrar soluciones a los problemas. El fin del Ayuntamiento es la recaudación de dinero y nosotros no estamos para nada de acuerdo que el Ayuntamiento se embolse ese dinero a costa de los ciudadanos. Además de no dar ninguna solución, está claro que está generando nuevos problemas.”

Además de todo ello el Sr. Sarasola solicita saber cuanto dinero se ha recaudado con las multas de la barrera de Ihurre.

El Alcalde le responde que antes de afirmar que no se ha solucionado el problema, hable con los vecinos de Ihurre y les pregunte a ellos si el problema se ha solucionado o no.

**HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS
MUNICIPALES**

**APROBACIÓN DE LAS FACTURAS
SUPERIORES A 3.000 EUROS.**

Se dio cuenta de cada factura a los corporativos en la pasada comisión informativa.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

2013/09/19KO BILKURA

3.000 EUROTIK GORAKO FAKTURAK
Facturas que superan los 3.000 euros

ZBK.	IZENA	CIF	ADO	AZALPENA	KOPURUA
1	EULEN S.A.	A28517308	ADO-99-914/2013	FRA. 2680702	4.267,11 €
2	URIARTE-PAGALDAI, S.L.	B01193606	ADO-99-603/2013	FRA. 13-00217	4.416,50 €
3	SOROA ARQUITECTOS, S.L.P.	A20053773	ADO-99-911/2013	FRA. 48/2013	3.448,50 €
4	E.IGARTUA ESTUDIOS Y PROYECTOS S.L.P.	B20826426	ADO-99-888/2013	FRA. 28/13	5.106,65 €
5	CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.	A20053773	ADO-99-885/2013	FRA. 190/13	10.765,38 €
6	GOROLDI S.L.U.	B20502613	ADO-99-880/2013	FRA. 1300963	3.220,90 €
7	EULEN S.A.	A28517308	ADO-99-779/2013	FRA. 2670297	4.267,11 €
8	GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	A20471462	ADO-99-764/2013	FRA. 13VCAN50	46.167,90 €
9	ERKA	B20954210	ADO-99-736/2013	FRA. AÑ000694	31.901,46 €
10	GOROLDI S.L.U.	B20502613	ADO-99-733/2013	FRA. 1300802	3.220,90 €
11	IZFE	A20471462	ADO-99-728/2013	FRA. 2013/772	5.530,96 €
12	CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.	A20053773	ADO-99-932/2013	FRA. 196/13	26.037,05 €
13	GOROLDI S.L.U.	B20502613	ADO-99-944/2013	FRA. 1301099	3.220,90 €
14					
15					
16					
17					
18					
19					
20					
21					
22					
23					
24					
25					
26					
27					
28					
29					
30					
31					
32					
33					
34					
35					
36					
37					
38					
39					
40					
41					
42					
43					
44					
45					
46					
47					
48					

GUZTIRA 151.571,32 €

Olaberrian, 2013ko IRAILAREN 9an



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Fakturak bozkutzen dira gehiengo absolutuz onartzen direlarik, BILDU taldeko abstentzioarekin, gardentasun falta aldarrikatzen duelarik.

Se procede a votar las facturas que son aprobadas por mayoría absoluta con la abstención del grupo BILDU, que alega falta de transparencia.

**DIRUZAINZAREN
INFORMAZIOA.**

EGOERA.

Udal-kideei 2013ko irailaren 9ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaion joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira, **1.591.335,45 euro** ditu.

Udal kideak jakinaren berri gelditzen dira.

**SITUACIÓN DE TESORERÍA.
INFORMACIÓN.**

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 9 de septiembre de 2013.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **1.591.335,45 euros**.

Los Corporativos quedan al corriente.

GIZARTE ONGIZATEA

GOIERRIN INDARKERIA MATXISTA JASATEN DUTEN EMAKUMEEN EGOERAREN DIAGNOSIAN ETA ARRETA ETA KOORDINAZIORAKO PROTOKOLOA DISEINATZEKO PROZESUAN OLABERRIAK DUEN PARTAIDETZA.

Joan zen Batzorde Informatzailean Zinegotziei gaia azaldu zitzaion.

Aipatutako xederako, Olaberriak 2013 eta 2014-tarako guztira 769,44 euroko ekarpena egitea proposatzen da.

BIENESTAR SOCIAL

PARTICIPACIÓN DE OLABERRIA EN EL DIAGNÓSTICO DE LAS MUJERES QUE SOPORTAN LA VIOLENCIA MACHISTA Y EN EL PROCESO DE DISEÑO DEL PROTOCOLO DE COORDINACIÓN Y ATENCIÓN QUE SE ESTÁ LLEVANDO A CABO A NIVEL DE GOIERRI.

En la pasada Comisión Informativa los Concejales fueron informados del tema.

Se propone que Olaberri realice una aportación económica para el 2013 y 2014 a tal fin de 769,44 euros en total.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Gaia bozkatzen da aho-batez onartzen delarik.

Sarasola jaunak, bere taldeak emandako botoaren zentzua azaltzeko xedearekin honako aipamen hauek egiten ditu:

“ Ados gaude. Txostenik edo protokolorik badago guri ematea eskatzen degu, baina uste dugu herritarrekin (emakumeekin) egin beharreko lan bat izan beharko lukeela. Hortik haratago gobernu talde hau ze konpromiso hartzeko borondatea dezute? Zein izendatzen dezute arduradun...etabar.”

Se procede a la votación quedando aprobada la propuesta por unanimidad.

El Sr. Sarasola , con el fin de explicar el sentido del voto de su grupo realiza la siguiente intervención:

“Estamos de acuerdo. Si hay algún protocolo o informe solicitamos que se nos ponga a disposición, pero pensamos que tendría que ser un trabajo realizado junto con los ciudadanos (mujeres). Además de eso, hasta donde tiene este grupo de Gobierno voluntad de compromiso? Quien nombráis responsable... etc.”

GALDERA ETA ERREGUAK

Jose Bernardo Aldasoro jaunak(OHE) egindako galdera eta erreguak

- **Errekaldeko larrialdietarako etxebizitza.**

Errekalden dagoen larrialdietarako etxebizitzaren alokairuaren errebisioaz zer berri dago? Azken alditik zerbait egin al da? Egiteko asmorik ba al dago?

Alkateak erantzuten dio, oraindik ez dela ezer egin.

Iñigo Sarasola jaunak(BILDU) egindako galdera eta erreguak

- **Zaborrak**

“Ados gaude gobernu batzordeak

RUEGOS Y PREGUNTAS

Ruegos y preguntas formuladas por José Bernardo Aldasoro (OHE)

- **Piso emergencia social de Errekalde.**

¿Qué hay de la revisión del alquiler del piso de emergencia social de Errekalde? ¿Se ha hecho algo desde la última vez? ¿Hay alguna intención de hacerlo?

El Alcalde le responde que no se ha hecho nada aún.

Ruegos y preguntas formuladas por Iñigo Sarasola (BILDU)

- **Residuos**

Estamos de acuerdo por la propuesta



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

egindako proposamenarekin eta aldaketak egitea ondo iruditzen zaigu orain arteko berziklatze tasan aurrerapausoa badakar. Zuen iritziz aurrera pausoa dakarren edo ez jakiteko aurrerapen pauso hori neurtu egin behar da. Nola?

Gure herriari dagokionean gaur egun zenbat berziklatzen den jakin beharko genuke eta hemendik 3-4-5 edo 6 hilabetetara datuak hartu eta ikusi zenbat aurreratu degun.

Gure iritziz %70 edo %80-ra posible da iristea, borondatea badago.

Aldaketa honekin eta kontzientziazio bilerak bultzatuz iristen bada denontzat hobeto. Ez bagara iristen egindako aldaketa nahikoa den berraztertu beharko degu. Ados al zaudete? Galdera hau denak erantzutea nahiko nuke.

Alkatearen erantzuna era honetan laburbiltzen da:

.- Lehenengo pausoa eta helburua herrian zenbat zabor biltzen den jakitea da. Hori jakin arte ez dakigu noraino heldu garen. Sasieta hartu duen konpromisoa herriko zaborra pisatzea da.

.- Sarasola jaunak dioenarekin ados egon arren eta bere galderari erantzunez dio, pausoz pauso egin beharreko bidea dela, orain planteatzen dena aurrerapauso bat dela eta zenbait helburu lortzekotan ere, aurrera egiteko beste pauso batzuk emango direla.

- **Altuneko betelana**

Epeak agortu egin dira. Nola dago gaia?

realizada por el grupo de gobierno y nos parece bien realizar cambios si eso conlleva un progreso respecto a la tasa de reciclaje. En vuestra opinión, para saber si esto conlleva o no un progreso, cómo se debería de medir?

En lo que respecta a nuestro pueblo, tendríamos que saber cuánto reciclamos y tomar datos dentro de 3-4-5 o 6 meses y ver cuánto hemos adelantado.

En nuestra opinión, es posible llegar al 70 u 80%, si hay voluntad.

Con este cambio e impulsando reuniones de concienciación, mejor para todos. Si no llegamos, tendremos que analizar si los cambios realizados resultan insuficientes. Estáis de acuerdo? Me gustaría que todos respondierais a esta pregunta.

La respuesta del Alcalde se resume de este modo:

.- El primer paso y objetivo es saber cuanta basura se recoge en el municipio. Hasta tener ese dato no sabremos hasta donde llegamos. Sasieta se ha comprometido a pesar los residuos que recoge en el municipio.

.- Aunque se muestra conforme con lo manifestado por el Sr. Sarasola y respondiendo a su pregunta dice que lo que ahora se plantea es un primer paso y que aunque se consigan objetivos, se darán más pasos para seguir adelante.

- **Relleno de Altune**

Los plazos están agotados. Cómo está el tema?



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

• **Ihurreko etxebizitzak**

Ihurre auzoko eraikin eta lursailen segregazioa nola doan galdetzen du.

Alkateak, une honetan azalerako zenbait akats zuzentzen ari garela argitzen dio.

Bertaratutako jendeak aurkeztutako galdera eta erreguak

Urkiola jaunak, Sarasola eta Alkate jaunen artean zaborrei buruzko hartu-emanaren harira, bere iritzia ematen du.

Urkiola jaunak, kalean pankarten ezarreraren inguruko arauketaren inguruan galdetzen dio Alkateari, honek, erabakiak hartu baino lehen gaia aztertu beharko dela erantzuten duelarik.

Urkiola jaunak Amoskategiko zubiaren asuntoaren egoerari buruz galdetzen du; Udalak egun arte zenbat diru ordaindu duen. Alkateak, azkeneko isuna 2012ko azarokoa izan zela erantzuten dio, 400 euro ordaindu zirelarik.

Urkiola jaunak Ihurreko langaren inguruko iritzia azaltzen du. Arazoari irtenbide bat aurkitzeko ados baina ematen ari zaion irtenbidearen kontra. Alkateak hartutako erabakiaren zergatia azaldu eta argudiatzen du.

Urreta Iza jaunak Ihurre auzoan dagoen langarekiko bere esperientzia eta desadostasuna mahaigaineratzen ditu. Seinalizazio urria eta nahasia nabarmentzen ditu.

• **Casas de Ihurre**

Pregunta cómo va la segregación de los terrenos y edificaciones del barrio de Ihurre.

El Alcalde le responde que en estos momentos se están corrigiendo unos errores de medición de los terrenos a segregar.

Ruegos y preguntas formuladas por el público

El Sr. Aitor Urkiola siguiendo con el debate iniciado por el Sr. Sarasola a cerca de los residuos expone su punto de vista.

El Sr. Urkiola pregunta al alcalde sobre la regulación de la colocación de pancartas en la vía pública, a lo que el Alcalde le responde que hay que estudiar el tema antes de tomar decisiones.

El Sr. Urkiola pregunta a cerca de como está el tema del puente de Amoskategi; cuánto dinero lleva pagado el Ayuntamiento. El Alcalde le responde que la última multa fue en noviembre de 2012 y se pagaron 400 euros.

El Sr. Urkiola manifiesta su opinión a cerca de la barrera de Ihurre, se muestra a favor de dar una solución al problema pero en contra de la solución que se le está dando. El Alcalde argumenta y le expone el porqué de la decisión que se tomó.

El Sr. Urreta Iza expone su experiencia y disconformidad con la barrera del barrio de Ihurre. Alega fundamentalmente falta de señalización adecuada.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Urreta jaunak baserritarren elkartearen zein pertsonarekin harremanetan jarri daiteken galdetzen du, dauzkan nekazaritza-tresnak lortzeko baldintzen berri eduki ahal izateko.

Honen inguruko eztabaida sortzen da bertaratuen artean, Alkateak bukaera ematen diolarik esanez, hura elkarte pribatua dela eta gaia tratatzeko Batzarra ez dela leku egokia.

Eta aztertzeke beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura arratsaldeko zazpiak bost gutxi direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkaria naizenez, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.

ALKATEA / EL ALCALDE

El Sr. Urreta quiere saber con quien de la asociación de baserritarras tiene que ponerse en contacto con el fin de conocer los requisitos para conseguir los aperos de labranza de los que dispone.

Surge un debate al respecto entre los asistentes que se pone fin con la afirmación del Alcalde de que esa es una asociación privada y que el Pleno no es el foro para tratar el tema.

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las dieciocho horas y cincuenta y cinco minutos, y yo, la Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.

IDAZKARIA / LA SECRETARIA